


FOLU-RE-8-1-(C3)



R E D

GOZNAARKERA ERAZA



Belaustegi'tar Pantzeska'k egiña.



1921

AN


34602

Jaungoiko-Zale'ren Irarkolea



H 73786
F 77727

ATV
34602



GOZTARKERA ERRAZA

Belaustegi'tar Pantzeska'k egiña.



1 2 3 4



* Jaungolko-Zale'ren Irarkolea.

Nihil obstat


Dr. P. Menchaca

Imprimatur

Victoriae 25 Ianuarii 1921

Gub. Eccus. (s. p.)

Dr. Joseph Leontius O. de Zárate



Goznarkera eraza


Goznartzia gañantzitsuba da.

Gixon eta emakumientzat, zaŕ ta gastientzat, kistaf gusti-gustiyentzat uzkuŕtz-egi ta betikofrak goznartzia da iñarkunik onuragiñena ta biaŕena be bai.

Egiyok buruz orok dakiguz, yakin utsez baña ez dogu ezer-egiten, eurok irakasten dausku-ben eraz bixi ezpa-gara.

Bizkera au iñarduteko, burua, gogua sutan, berotu, goritu-biaŕ dogu, ta goritasun au uzkuŕtzeko egi betikofrak goznartzia emongo dausku. *In meditatione mea exardescet ignis»* (Ps. 38, 4). Eta Iudija, gixabatza ondamendiz ondatuta bada, goznartzen daunik ez dalako da.

Egiyotzaz yazoten yaku yakijatzaz abere batzuei yazoten yakena. Janda gero agora ekaŕi ta auznaŕ egiten ezpa-dabe, yakiyak, baŕuan daben aŕen, onurarik ez dautse egiten, eta guri be, beraulan, egiyak, ikasita be, burura bafiro ekaŕi, goguaz naŕazka lez erabilita, ondo zetu-ta, geure-geure egiten ez doguzan aŕtian, geure baŕuan diran aŕen, onurarik bapez edo gitxi baño ez dauskube egiten. Egiyoi daben guna atara



ta geu, donokira bidian lokatu ez egiteko bestian sendo geratu ta ibili gura ba-gara ba, goznaŕ-egin biaŕ dogu.

Goznartiak, goxian egiñikuak batez-be, egun gustirako bat gertu iminden dau, goguari ezartenautso gotiaŕ gun zerbait, eta adimenari donokiko sena, aulan egikun gustiyetzaz Jaungoiko eraz, eta edozertzaz kistaŕ on bat lez iñardu dagian.

Goznartiak onexeik etenkiňok emon oi dauz.

Lenengo egi gotiaŕak goguan ezafiyago iminden dauz, adimena adipetuago izten dau, ta ziñismena bixiyagotzen dau.

Gaňera, gauza gotiaŕak ikustera egiten gauz, ta zilegizti ta uzkuŕtz neufijetara oťuten gauz, igari be barik, beraugatik buruak emoten dauskuzala, biaŕ doguzanian.

Egi gotiaŕak goguan emoten daben efo au, ta, itzumuztuan lez, berez erabagi gotiaŕak gogoratzia beti, egunoro, beintzat zerbait egiyok aztertu ta goznartzan dauzan gixonarenak dira.

Eta goznartzte bakotxan ekoizpen gitxi edo bape ez dala ataraten dirudijan aŕen, egun, ilabete ta urte yaŕaubetan goznartziaz ataraten dana ez da ez gitxi ez txikija, asko ta andija baño.

¡Goznaŕtzen daunaren eta ez daunaren artian alde bat bai dau ba!

Goznaŕtziak beria dau zerbait otoi-egitia; eskatzia bariz, norberaren burua donokiratzeko, iñarkun kistaŕetatik onenetarikua da, beraugatik, goznartzia, gaizkatzeko oberik eziňekua.

¿Goznartzia nekeza efe-da?

Batzuk nekeza dala diñue: baña, atara asi ezkerro, uste baño erazagua da.

Bere nekeztasuna sortutenean da edo Janik egin gura ezetik-au da sañien yasoten dana-edo bat aburikatzen dalako, ba gogorako egiyak asmenetako egiyak bestian ez gabez ikaratzen, edo astija zetan emon eta goznarteko egikunak atontzez ez yakiñetik; itz batez, goznartzan ez dagikulako.

¿Goznartzea zer da?

Goznartzea gure gogo-arimako-garatzari yao-kazan gayatzaz apurtxu baten buru-austen ego-tia baño besterik ez da, buru austen-ostian, gure gogoko ogasuna geyagotzeko erabakiyen batzuk aítzen doguzala, erabakiyok iñarduteko Jaunari indarra ta eskaña eskatzen dautsagula. Beraz, goznartiarenak iru egikun dira: lenengo gogo-ga-yen bat oldoztutia; bigañen gai oñetzat erabaki-ren bat aítutia; irugañen erabakiya betetako eskaña eskatutia.

Ludiko garatz, ogasunatzaz zer egiten dozu?

Daigun, salkun, eroskun edo irabazpideren bat esku-artera dakaítzuela.

Garatz au aztertutenean dozu ta bere onura ta kaltiak astindutenean dozuz.

Ona deritxazunian, zeuretzako artzia ta ona ez deritxazunian, zabaítutia erabagiñen dozu.

Erabagi au loftuteko biañ-dozunian, laguntza

eskatzen dozu, adibidez, salgei daunaren ezagun bati, saldu dagiketzen, edo; biaŕ dan beste txindi ezpa-dozu, daukanari biaŕ dozun txindiya, edo...

Goguatzaz-arimea-tzaz be bardin egin-biaŕ da.

Goznar-egiteko era efaza.

Goznar-egiteko era asko dira. Loyola'tar De-un-lñaki'k iñarkunetan irakasten dauna, da, gure aburuz beintzat, bidezkuena ta efazena.

Era au osoz atzaldu ezker, iñarkunek safitxu egiten dabezanak dakiyen lez, arau ta bedegafez ugarija da; egunoro ordu lauren edo ordu erdi bateko goznartia egin gura daunarentzat baña, era au labufki atzalduko dogu.

Gaya.

Goznar-gaya txonitzetan, idaztiyetan edo irakasti-kistafetik dakixunetan idoro-biarko dozu. Txonitzak, aŕetaz entzuten ba-dozuz, gaya ugarri damoketzue. Idazti ederak be bai-dira. Basabe Abearen «Gogartiak»; Eguzkitza'tar Jon U. Yaupariyaren «Mariya'ren ila» beste batzuen artian egoki-egokitzat ixentatzen dautzuguz.

Goznarte-askaldiya.

Goznarte-askaldiya iru egikunez eraltzia onuragiña da.

Lenengo, GOIKO-JAUNAREN AGIRIYA, alegia, Goiko-Jaunaren agiriyan yaŕten nuala efaz-efaz

oldoztu; egikun au nabaikoñago ixan dadin, Deun-Iñaki'ren onua da, bakařik garanian beintzat, GOIKO - JAUNAK NAKUS - oldozkuna, goznař egingo dan tokija baño oinkar̄te bi bat auferago iñardutia.

Bigařena, GOIKO - JAUNA GURKUNA, alegia, egikun au astian, lotsaz ta apalez Jauna guř-dagi-gula, guřkun au be, Iñaki Deunaren onuba, bakařik garanian, egikun agiriyen bategaz agertu daigula da.

Irugařena, GERKUN - OTOYA, alegia, goznař ondo egiteko eskařa Jaunari eskatzia.

Gerkun-Ofoya.

Atzaldu doguzan askaldiko iru egikunok ar̄tzen dauzan otoya emen imiňiko dautzugu.

Ene Jaun eta Goiko-Jauna! Emen auřke zarala ta argi nakuzula, bixi zinisten dot. Bixiyagotu egixu nire ziňismen au.

Nire biyotza txirua da, al dod: n lez baňa maře zaut eta guř-egiten zaut.

Egin daustazuzan on gustiyakatik eskařak-dagitzudaz. Neure oben gustiyen azkitza apal-apal eskatzen dautzut. Goznarte au zeu albait geyen aintzatu ta nire gogua al dan geyen aberastutekua ixan dadin zeure eskařa ugari emon egistazu. Berau obeto yaristeko, Miren Deuna, ene

Ama, ta donokiko Gotzon eta zorondunak, zuekana eltzen naz - ta, lagun - ixan zakidaze.

Ata guria, Agur Maria ta Aintza Atari.

Goznartea.

Goznartea gogoko almenak, gomutamena, adimena ta guramena iñarduaz egiten da, ta autaraxe egin dagikegu lau iñarkunez.

1.^a GOMUTAMEN-IÑARKUNA

¿Zer nua goznar - egiten? Itaun au zeuk zeudoferi egizozu. Bardin dana, zerbait irakuři egixu, idaztiyen bat, esakunen bat edo abar, ta itaundu zeudorek ziatz erantzutekotan; *¿zer irakuři dot nik?* Baña burura ekarri txonizlariyari entzun zeuntsana, edo aurtemin irakuři zebana. Eta entzun zebana edo irakuři zebana beste bati argi ta garbi esateko bestian, ondo ta argi yakin da geratu.

2.^a ADIMEN-IÑARKUNA

Irakuři edo entzun dodan au egiya ba-da, ¿nik zer egin-biar dot? Au egin-biar dot, edo bestia egin-barik itxi-biar dot. Urliyaren aizkide ixan-biar naz, edo berendiyaren aizkide enaz ixan-biar.

Idazti au sañitxu irakurfi biař dot, edo a bestia ez dot iñoz irakurí-biař.

Jai aretara ez naz iñoz yuan-biař, oñura a itxi -biař dot, ikuskixun a ez dot iñoz ikusi-biař, beste oñurea, iñarkuna aŕtu-biař dot. Aunetzaz oldoztu-biař asko ixaten da. Norberaren biarkunak, erazkunak, oi doguna ta ez doguna, egiten doguzan girtildura, soroski, irakuŕte, jolas, erausia, doguzan aizkide, bixibide, jaskera ta abar. Zure seme-alaba, senide, otsein, aizkide, areriyatzaz daŕabixuna ta eztarabixuna ta abar. Astiya zetara igazten yatzun, uriko goraberetan egiten dozuna ta ez dozuna, zure gogo-gayak, yaupa -entzute, autoŕtze ta abar zelan darabixuzan eta abar. Ara, zure bixiuneko egikun gustiyak eta bakotxa.

Eta sakonagotik, sustafai senduagoduna ixan dadin buruan darabidana, buruak emon daustazan erabakiyen ziyuok begiyan aŕfian imiñi neikez: Au egitia edo bestia ez egitia *egokiya, onuragiña, pozkorá, eraza, biař-biařa* etc da... beste ziyo, batzuk be ikusi dagikedaz.

3.^a GURAMEN-IÑARKUNA

Egin-biař dodala ulertu dodan au egitía erabagiten dot ba.—Egi-egiz erabagi be gero, bigafen iñarkunan erabagitía egoki dala ikusi doguna. Eta erabakiya aŕtzian berau betetako gurakunak berotutenean, sendotutenean alegiñak-alegin-egin. Gauza bi baña aiztu barik ixan-biař doguz: bata,

erabaki au betetako ixango yakuzan eragozpenak, eta bestia, berau betetako lagun-ixango yakuna.

4.^a OTOI-IÑARKUNA

*Makala nazalako baña, oraingo erabakiya gor-bera, ezezka asiko naz-ta, Jaunari eskaŕa es-
skatu-biar dautsat.*—Iñarkun autan albait beruen eta sutsuen, biyozketa askogaz, ta bati otuten ezpa-yakoz, lendik dakiguzan otoiz, Goiko-Jauna Alorodunari aŕtu dogun erabakiya betetako, iñarduteko eskaŕa eskatu. Eta Josu - Kisto gure Jaunagana bedegaréz eldu dagike, ta *Kisto' ren goguoi...* esan; gero Miren Deunagana zuzendu ta *Aguŕ Maria* edo *Aguŕa*-edo esan. Bata Gotzon eta donokiko Zorundunai be eskatu dagikiyue, ta onurakoŕa da. Amaŕu Goiko-Jaunari itz-egin eta Aŕa guria esanaz.

Oraindiño astiya geratzen ba-da, bigarén gai bat aŕtu, ta lenengokuatzaz irakatsi doguna egin, lau iñarkunok egiten doguzala, gomutame-nagaz oldozkaya burura ekafí, adimenagaz goz-nar-egin, guramenagaz erabaki, ta Jaunari es-kafak eskatu. Laugaren au gaŕantzi-gaŕantzitsuba dala buruan ondo yosi: berau-barik gogozko otoirik ez da, ba otoi-egitía Jaunari eskaŕa es-katzia baño besterik ez da, ta lenengo iru iñar-kunetan ezer ez da eskatzen.

U A R A

Sakonago ta ziaztasun geyago gura ez daunarentzat ixentau dogun goznar-era au eŕaza dala uste dogu. Alan da gusti be, Deun - Iñaki'k irakasten daun gauza bat getu gura dogu. Gerkun-otoya eginda gero, goznar-egiten asi baño len, *irudikuna* diňona egin. Au, jazokuna danian, goznar-egiten guazan au, oraintxe aurian ba'litz lez iruditutia bere toki ta gusti, ta jazokuna ez danian, gaya ulertuazoko deuskun irudija egitía baño besterik ez da.

Beste arau batzuk be bai-dakaz, ez doguz iminden baña luziegi itz-egin eta nasteren bat soŕtu ez dadin, eta gero be, euren bizkerea eŕaz erabili ta sakon-sakonetan saŕtu-barik goznartia egin gura dabentzat idazten dogulako. Azkenetan, goznartez biaŕ dana da, egunoroko egipenak obatu, bakotxa zintsuago iñarduta, ta edozetarako kistaŕ-sena norberagandu, bere bidez, edozer ta edonoz kistaŕ ona lez, berezian egiteko. Saŕitan, aŕtu-biaŕ dogun erabakiya, oi doguna egitía, egiten auŕera yafatutia baño besterik ez dau ixan-biaŕ; ba, onenian moteltzen asi gara, ta bafiro erabakija bizkoŕagotzen ezpa-dogu, zabaŕtu egingo dogu.

Goznar-egiteko beste era eñaz ta onuragin -onuragin batzuk.

LENENGO EREA

Aurenengo, beti lez, gerkun-otoya. Goxean oldoztuko dozu egun bitartian egin-biar dozuna. Batez-be garatz garantzitsu ta nekezen bat egin-biar ete dozun, edo galtzori, ziltzakunen baten zure burua ikusi-biafko ete dozun, edo onen bat egiteko erati bedegañen bat ixango ete-dozun. Auria aituko dozu, eta biañ diran neuriz erati oretarako gertauko zara, oldoztuta zelan obenik txikiyenik be baga ixango zaran, eta onen bat iñarduta zetara astija gonduko dozun, ona baño obia ixatekotan. Egin biañ dozuna dagikezula erabakiya aituta, Josu ta Miren Deuna-bidez, erabaki au betetako indarña ta eskañ aldin-tsua eskatu.

BIGAREN EREA

Gerkun-Otoya eginda gero, dakixuzan otoye-tatik bat, *Ata guria, Agur María, Ziñiskintza, Agurá*-edo arakatu egikezu, itz edo esakun bakotxan pozik astiya emon zegiken bestian bera goguan dozula, geratuta.

IRUGAREN EREA

Bigarénen idekua da.

Gerkun otoya eginda gero, dakixuzan otoye-tatik bat-edo esan, astiro, bigarén eran esan dantzugun baxen astiro ez, baña bai bera-esatez, barúa gozotuteko eraz, adibidez, *Ata guria, Agur Maria eta Ziñiskintza* eta *Agur* bakotxan iru edo lau iroiren igazten yatzula, ta gozuago ta atsegintsuago yatzun zatiren baten astiruago yuanaz.

LAUGAREN EREA

Beti lez, lenengo gerkun-otoya, ta gero, arakatu astiro, banan, amar agintzak ta aztertu zelan betetan dozuzan, edo Ziñiskayak zelan ziñistuten dozuzan eta zelan ziñistu-biar dozuzan, edo Eŕukizko Egiñenak eta zelan iñarduten dozuzan eta iñardu biar dozuzan, eta bar din, gura ixanezkero, egin dagikezu zortzi Zorunakaz, Soin-asmenakaz ta abar.

BOSKAREN EREA

Auñenengo gerkun-otoya, ta gero zure ayuría ta ixakerea, ta dozun utsen bat aztertu, eta berau kentzeako bidia ta neuríyak aŕtu, edo bata be dozun ekandonen bat edo euki gura zeunkenen

bat ta berau zeuganduteko, biař diran neuriyak artu. Obeto loftuteko eskatu ugari Goiko-Jau-nari inđar aldintsuba ta eskařa.

SEIGAREN EREA

Ařtu idazti on bat, adibidez Goizparkiya, Ari-men līa, edo Irakasti Kistařa, ta, biař dan otoya eginda gero, zerbait irakuri, baňa astiro, ta irakuři dozunak irakasten dautzun eraz bixi ixate-ko eskařa, gurakun bixiz, eskatu.



